

(II) SORGINAK-6-

(I) ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA

1. Kattalin, zure uestez, zer da?
2. Gero, zure uestez, nor da bigarren buruzagia?
3. Zer amarru keric gogo hartz dute?

KATTALINEK.—Huna zer heldu zaiztan burura: Maria eta Xaneta, jende gaixto gehienak bezala, gaixto bezen *sinbets-herak*⁸ direla badakizue, nik bezen ongi. Bethi sorgin eta debru ixtoio, ez dute bertzerik aiphi. Erraiten baitute, Senperen eta Lapurdi guzian, sekulako sorginak erre zuztela lehenagoko mendeetan, badut uste Mariak eta Xanetak xitun egon beharko zutela denbora hietan! Bertzela, Jon Doni Joane bezperan egiten diren su handien iduriko su batean kixkaili beharko ziren...

BENITA.—*Hezexkoak* ez othe ziren izanen hortako ere?... Sua ongi harrotuz, behar bada...

XOBADINAK.—Benita! zoin gaixtoa ziren, gaur! (*Orok birri*)

KATTALINEK.—Dena den, guzia supertizione direnaz geroz, huna zer egin diteken, ongi balinbazautzue segurik...

Lehenik beren etxeetan beretan, behar ditugu izitu, harri-razi. Ganix eta Oier, gure anaiak, gordeko dire zoko batean, gauaz; eta handik egimen dute zer nahi harramantza, oihu eta intzire, eta garrasia...

BENITAK.—Hoi! hoi! zer loria! Gora zu, Kattalin! Gero, gero?

KATTALINEK.—Gero? Hots, gero, itzal eta ilhunpetik sekulako harriak arthikiko dituzte.

KATIXAK.—Ai Maria! ai! Xaneta!... (*Orok birri*)

KATTALINEK.—Erran gabe doa ez dituztela berak hunkituko...

JOSEPAK.—Hanbat gaixtoago! Zertako ez, pitta pitta bat? Ez odolik egiteko heinean, baiman uspel pulliño batzu, doi doia...

XOBADINAK.—Josepa! (*Orok birri*)

KATTALINEK.—Gero ondotik, hobeki egimen dugu orain. Noiz eta ere durduzatuxek izanen baitira, hosto-paper *gorri-gorri* baten gainean, hitz larriz eta beltz batuetan izkribatuko diotegu, MAHUMAREN eta INGUMAREN⁹ izenean: "heien gaixtakeria guziez nardatuak direla". Mahumak eta Ingumak aithortuko dute kalapita guziaren egileak, harrien arthikitzaileak, hek direla eta ez direla hortan gelditzekoak; zer nahi bertzerik egitekotan direla, non ez diren Maria eta Xaneta beren phozoinkerien arthikitzeik hek ere gelditzten, eta lehen bai lehen oraino.

JOANNAK. *Serora Bernardina*igor balitza bederen Ingu-mak! Ez omen dira sekulan mintzatzen Angeluko serora hoik!...

KATIXAK.—Zortzi egun gabe hilak litezke, gaixoak! Mifitzatu gabe, Maria eta Xaneta! Ai! ai! ai!... (*Orok birri*)

Bere lagunak bola mintzo diren artean, ixil ixila athera da Kattalin.

(III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. egin diteken 32. Bazauzete

33 Erran gabe doa 34. Hilak litezke.

31 IZAN Potentiel Présent. (V. p. 15)

Ni izañ maiteke (mitake) = je peux être

Hi -u- haitzke = tu peux être

Zu -u- zaitezke = vous pouvez être

Hura -u- daitezke (diteke) = il peut être

Gru -u- gaitezke = nous pouvons être

Zuek -u- zaitezkete = vous pouvez être

Hek -u- daitezke = ils peuvent être

32 IZAN Régime indirect. Indicatif Présent

Hura da = Il est

Hura zaít (zaunt) = Il n'est

" Zaizu = Il vous est

" Zaio = Il lui est

" Zaigue = Il nous est

" Zaizue = Il vous est

" Zaie = Il leur est.

33 JOAN = aller - Indicatif (V. p. 13)

Ni moa = (je vais) Imparfait

Hi hoa = (tu vas) p Nindoan = (j'allais)

Zu zoatzi = { E Hindoan = (tu allais)

Hura doa = { S Ziaotzin =

Gru zoatzi = { E Zoan =

Zuek zoazte = { N Guivatzin =

Hek doatzi = etc. T Ziaozten =

Zoatzin = etc.